

2016ko azaroaren 11, ostirala

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4750

EBAZPENA, 2016ko azaroaren 3koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, euskal autonomiari buruzko idazlanetarako «Jesús María Leizaola 2016» sariako epaimahaiaren ebazpenaren berri ematen duena.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak euskal autonomiari buruzko idazlanetarako «Jesús María Leizaola 2016» sarirako deialdia egin zuen 2016ko martxoaren 17ko ebazpenaren bidez (maiatzaren 2ko EHAA, 81. zk.). Horrekin bat, epaimahaiak, bildu ondoren, ebazpen hau eman du:

EBAZTEN DUT:

«Jesús María Leizaola 2016» sariaren epaimahaiak emandako ebazpenaren berri ematea. Honako hau da:

1.– «Jesús María Leizaola 2016» saria ex aequo ematea Amaia Urkiola Fernández andreak aurkeztutako « La redistribución entre Territorios Históricos dentro del sector público vasco» lanari eta César Gallastegi Aranzabal jaunak aurkeztutako « Euskera y régimen foral vasco: lengua, comunicación, poder y derecho en Bizkaia, Gipuzkoa y Álava (1500-1876)» lanari.

2.– Ebazpen hori interesdunei jakinaraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 3a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.